

Bakazio-hilabetea da Abuztua. Besta-hilabetea. Gogoeta-hilabetea ere bai. Hilabete egokia, horretaz, urtean barreneko haririk urrunteko eta gertakarien balantzea egiteko.

Bi modutara urrun gaitzake, bestalde, eguneroko bizimodu horretatik. Turismoa da bata, jakina: bi daia baten bidez tarite bat kilometroz sortu; eta urruntasun berri horretatik nolabait bir-jaio, eta nolabait ere dena bir-pentsatu.

Turismoaz gain, dena dela, badago bigarren bide bat: bilatzen dugun tarite hiri kilometroz ez-baina urtez edo denboraz mamizta. Garbikiago mintzatu, eta frantses hitzez, "à la recherche du temps perdu" delakoan abiatzea; eta joandako denborak eman dezakeen ikuspegi bereziaren arauer delako pausa edo gogoeta bakardadean egitea.

Bigarren urrunbide hau hautatu dut nik aurtin; eta, urruntasun horren bila, Nogarora joan naiz. Nogarora hiri, bizpahiru mila bitanle. "Gascogne" deritzen eskualdean dago; baina auto-lasterketak maite dituztenek gain, gutxiak dakite, nire irakurlearen artean, non den. Antzinateko Auzki eta Elizua hiri baskonikoen ondoan kokatua (Auch eta Eauze gaur, beren izen ofizialez), orain dela hamabi urte ezagutu nuen Armagnac-eko hiriburua tipiki hau.

1971-ko Ekainaren hasera zen orduan. ETA-ko 30 lagunekin batera gose-oporra bukatuta (han izan genituen, Katedralea, eta besteak beste, Jon Goikoetxea, Eustakio Mendizabal, "Korta", Etxabe, eta abar), egun batzu lehenago Baionako Ospitaletik irten; eta gose-grebaren ondoko lehendabiziko bizkorraldia bizpahiru egunez Isidro Montzonek Olhetan zeukan etxe ederrean egin ondoren, Nogarora abiatu ginen Telesforo eta biok. "Pour une courte période de temps seulement", agindu zigutenez.

Zergatik Nogarora, eta ez beste norapatik? Erantzuna erraza da: debekatuak ez genituen departamenduaren artean, Euskal Herri-tik bertakoena Gers gueluak; eta Gers horren barruan, ia-ia Landen mugan bertan, mapan "Nogara" zerituen herri bat topatu genuelako. Ez dago beste arrazoirik bilatu beharrik.

Goiz batez iritsi gara, bada, bi bidarok Nogarora hartara: "eloignés" ginen ofizialki, baina deserrituak geure uestez, Euskal Herri-tik kanpora bota baigintuzten.

Eta Telesforok, ez bat eta ez bi, burutazio hau izan zuen: "goazen oraintze Nogaroko alkatea agurtzera". Ez genekien bera nor zenik ere, noski; baina "gauzak argi-eta-garbi azaltzea komeni zela" pentsatu zuen Telesforok, eta hara joan ginen.

Dupuy senar-emazteek (sozialistak eta Mitterrand-en senitarteko,

geroago jakingo genuenez) ezin harrea hobe egin ziguten; eta Nogarotik lauzpabost kilometrotara dagoen Salles d'Armagnac auzunean finkatu ginen. Telesforok oso maite zituen teiltatu gorri-gorriko batimendu karratu zabal hura, murrak hori eta luze, eta bertako zelaiak. Mahastiz inguratua, aurrealdean eliza zahar batez hornitua halako zola batetan edo, etxe dotore har bazuen (badu, hobe, lehenagoan ikusi nuenek) sekulako "gradua", gure bertsolariak bezala esateko. Geroztik ere, Nogaroko egonaldi gogoangarri hura urritu utzia genuelarik ere (ahantzi ezinezko lau hilabete harrigarri), behin baino gehiagotan aipatu zidan Telesforok Salles d'Armagnac-eko giro hura. Barruraino sartu bide zitzaion.

Lekua bakarrik ez, ordea; orduan senditu baitzuen Telesforok Euskal Herriaren geroa agian bere eskuetan jarriko zuela gure herriak ondoko urteetan. Osasun eskasiar lehenengo zantzuak, dena dela, nik dakidenez bederen, Baionako katedraleko gose-oporrean eta Salles d'Armagnac-en nabaritu zituen Telesforok: Katedraletik gauean espantuka aterata, Salles-en ere aldapanik txikienean eskatu ohi zidan itzaroteki, amasak behar bezala erantzuten ez ziola-ta. Hobe-kiu egin zen geroztik, nik ueste; baina Euskal Herriaren beharrez ongi jabeturik, izutatua ere egin zuen bere koronari-urrutasuna; eta hori, ene uestez, bere osasuna eta bizia arriskatuz, eta galduz ere azkenean.

Aurreko lau hilabeteetako saiketa ("Frente Abertzalea" eraikitzeo Franco-ren heriotzakotan Madril-rentz kontra bat agertzeko) lutsu egin zen. Orduan ere, nahiz Telesforo oraindik jeltxide izan, PNV erretiratu zen biltzarreetatik; paper mutur batetan makinaz lerro pare bat utzirik: "habria que empezara por establecer contactos informales previos", edo horrelako zerbaite. PNV-a erretiratu ondoren, atek zabalik gelditu ziren hurrengo biltzarrean "eladioak" erretiratzeko. Eta gero biñ kontrako espulsoia etorri zenean, akaboa. PNV-ak, aspaldidanik bezala, PSOE-kin tratatu nahiago zuen, sortzen hasia zen ezker abertzalearekin baino.

Joko hau dela-ta, izugarri sofriritu zuen Telesforok. Abertzalearen etxeko elkarrekin bat egiteko mementu egokia iruditzen baitzitzaion. Joseba Elozegi-ren ekintza miresgarria (bere burua sutan Franco-ren aurrean botatzea), denon gogoa zegoen; eta kantak ere sortu ziren. Hots, Telesforok

hamabi urte

errezibitu zuen Elozegi-renqandik, buruz buru, baita argitara eman ere, honek, bere heriotzaurrean, testamentu gisa utzi zion testua: "Quiero morir por algo". Burugoko auzia, bestalde, bukatu berria zen; eta ETA-k Europan lortutako oihartzuna inoiz ez bezalakoa zen.

Hegoaldetik eta Iparraldetik Nogarora zetozkigun bisitariak ugaldue egin ziren: kolore guztietako abertzaleak egin ziguten bisita.

Eta, halako batez, proposamen hau egin zitzaion Telesforori: "Batez beste, PNV-ko eta ETA-ko jendea zeure alde duzu. Oraintze da mementua. Atzerriko Euskal Gubernua eraiki behar duzu, Paris-ko Jauriaritza eta Beyris-ko aparatosa ukatuz eta gaindituz. Herria zai duzu".

Telesforok sekulako zauskada hartu zuen, kezak, zorabioak senditu zituen; batez ere PNV-ko aparatorekin hautsi nahi ez zelako. Aurrera jo nahi zuen, bai; baina PNV-aren arazoa "barnetik" konponduz, eta etenduririk gabe. Eta ez zuen aurrera-pausua eman.

Geroak esan beza. Nik neuk hau ueste nuen (eta ueste duti): Telesforok aurrera jo izan balu, Euskal Herriaren egoera gaur erabat desberdina izango zela, baita aisa hobe ere; eta siglen gaintetik, tratu taktiko gisa bederen, kolore guztietako abertzale egiazkoak, ETA-rekin batera, elkarrekin egongo zirela inperialismoaren kontrako borrokan. Gaur berantegi da, eta alferrik dira mailoak.

Jakina: Beyris-ko burokratek, eta Telesfororen zapata-zolara sekula iritsiko ez diren jendillaje merkeek, berehala asmatu zuten hura nondik jo: "Telesforo no entiendo nada de política: no pasa de ser un poeta".

Eta egia da: Telesforo poeta bat zen. Orain arte euskal iraultza nazionalak eman duen aberri-poetarik handiena! Bere olerkari-sen honetxek eman zion indarra, hain zuzen, borrokarik eusteko. Eman zion, eman zion, eta emango ere digu. Telesforok ez omen zeniek ezer politikaz. Baina Telesforok hau esan ohi zuen: "Herriak, haurrak bezala, oinazetan eta odolatan jaiotzen dira; ala ez dira inoiz

jaiotzen". Eta, jakina, erokeria hau ez dute politikeroek inoiz ulertu. Hots, horrenbeste politika omen zekiten burokrataxka eta azken orduko peeneuero saldu horiek, nora eraman gaituzte?

Herri baten liberazioak handitasuna behar du funtsean, gorentasuna, zintetasuna, barne-sinesie osoa. Lanpostu seguruen harraipatzailek eta karrera "oneko" fenomenoek ez dute inoiz herrikerik jasotze eta salbata, ezta jasoko eta salbatuko ere. "No se puede ganar la guerra con un ejército de mercenarios", zion Maquiavelok. Ezin daiteke herrikerik salba eta gisa poetarrik gabe. Gaur bat da militarren organizazioa, ezkerkiro eraikia, behetik gora batua; eta beste gauza bat teknokratik eta funtzionarioen aparatosa, eskunkiro oratua, goitik behera erakuna. PNV-ak, jakina, bigarren hau montatu du, Telesforo bezalako buruzagiak uxatuz, eta Gernikako Batzarretxean Franco-ren del-finari txalo joaz.

Orain, jakina, LOAPA-ren ukazioa dela-ta, Telesforo gorroto zuten aberchaleak oro ezin soseगतurik daude, txanpantza ta gutzi. Batez ere LOAPA "anti-constitucionala" zelako... Orain, LOAPA gabe, irabazita bide dago dena.

Otoi, aberkideok! Garaia badugu egoera garbi konprentzeneko, eta PNV zeren atzetik ari den ikusteko. PNV-ak, hamaikagarren aldiz, hauxe nahi du bakarrik: gure herria *desmobilizatu eta desarmatuz*; "pake" hori gabe ez baitago negoziarrik egiterik.

Konstituzio honen barruan, Nafarroa berex dagoelarik, okupazioa nabarmen dirauelarik, drogaren izurritea gero eta hedatuago delarik, euskara itultzaile-hizkera hila bihurtu delarik, herri-mogimendiak hondatuta daudelarik, chunka gudari preso eta atzerrian dagoelarik, handitasuna eta prestutasuna politikaren alorretik lekutu direlarik, *berdin da, osoki berdin, bai*, LOAPA hori aurrera ez ateratzea; beste izan batez, beste bi LOAPA, beste hoge LOAPA ere, sartuko baitzitziote PNV-ari irakurleak somaten duen lekutik... Zer esan nahi du "LOAPA-EZ" titulu harro horrek, PNV horrek berak dituen uduletxeetan ikurrria altxatzeko potrorik ez duen mementu berean?

Telesforo asko behar dugu, gure herriaren *independentzi-nahia* azaldu eta *sendi-araziko duen* olerkari multzo bat. Eta orduan bakarrik, gure herriak helburua garbi ikusi duenean, orduan pikutara joango dira oportunistak; eta Telesfororen kastako gudariak nagusituko.

Eta truke hori gertatutakoan, eta borroka latzaren ondoren, orduan, eta ez lehenago, gure herria bere buruaz zinez jabeturik ikusiko dugu; eta gure artean egiazko zuzenbidea eraikitzekotan hasiko.

TXILLARDEGI



colaboración

el sr. alvarez nos viene de cuento

Causar menos molestias a ciudadanos es el objetivo del jefe superior de Policía de Bilbao y delegado del MULC, Francisco Alvarez. Así lo afirmaba a grandes titulares de prensa. Sus palabras, sin embargo, son desveradas por los hechos, del Bar Mikeldi por ejemplo. Entra la policía, 150 clientes cara a la pared, seis de ellos a comisaría para salir al poco rato y amenazas al dueño, reiteradas, de romperle la cabeza a patadas. (Se comenta que convendría sustituir la txapela por el casco porque "echan las patas por alto"). A los cuatro días y para evitar a los ciudadanos las molestias del olvido,

vuelve la policía y detiene a dedo a siete, "tú, tú y tú". Uno de los agraciados, que en aquel preciso momento estaba hablando con su madre por teléfono, fue sacado a porrazos que provocaron la pitada de los testigos y también el paso por la Cruz Roja de Urazurrutia. He aquí, pues, las detenciones selectivas que anunciaba el Sr. Alvarez para evitar molestias a los ciudadanos.

Palabrería*engañoso, por otro lado, de evitar molestias... al tiempo que se maquina para mantener y consolidar la molestia fundamental, raíz y fuente de todas las demás, como es el sojuzgamiento del pueblo. Cuidemos mucho de no confundir hechos más o menos frecuentes con una situación permanente y duradera. Los hechos o

actos de molestia son vejatorios, pero el estado de molestia permanente es aniquilador de la personalidad del pueblo. Acciones represivas como las de Rentería, detenciones, torturas... son la espuma visible de la resaca permanente negadora de los derechos de nuestro pueblo. Se da la tal "guerra de las banderas" porque existe una guerra total contra la conciencia independentista. Ikurrria sí, pero acompañada, sometida, símbolo externo del pueblo no libre y dependiente.

De ahí que los espafolistas y los semi o seudo nacionalistas, en comparsa con todos los reformistas, traten de arreglarselas para justificar legalmente e imponer militarmente una injusta situación de los pueblos oprimidos bajo el grandie-

locuente título de estado de Autonomías, que en realidad resulta el estable de los Automatas, donde los ciudadanos sigamos condenados a ser bestias de carga o estable, tiro o paro, conforme exija la reestructuración de la explotación capitalista.

MEMAIA

carta para javi, el joven parado

Estimado Javi: Tras la lectura de tu brillante escrito publicado por EGIN el día 2, te diré que aunque tienes la desgracia de estar parado laboralmente como otros muchos jóvenes, tienes la suerte de estar muy activo intelectualmente y de

poseer una madurez notablemente superior a la que te corresponde por edad. Y muy principalmente, tienes la fortuna de una innata capacidad filosófica, que les vendría al pelo a muchos doctores en filosofía.

Te ruego moderes el egoísmo para que ni siquiera pase por tu imaginación la idea del suicidio; puesto que, todos necesitamos de tí, y de muchos como tú. Y muy lamentablemente no abundáis.

Sería absurdo que tratara de animarte, cuando eres tú el que eleva nuestro ánimo al comprobar la existencia de jóvenes como tú. Muy egoístamente me limito a desearte suerte, porque tu suerte será la de muchos, entre los que estoy incluído yo.

BIGOTES